

TINTAZKO IPOTXAK

Itziar ezberdin sentitzen da. Ez da bere adineko beste neskatilak bezalakoa, berezia da. Ez da mila argien gutizia duen ile dizdiratsuarengatik, ez eta bere hortz txuri eta ezin hobeengatik. Ez eta bere begi urdin argi sarkorreatatik, hauek bere bederatzi urteak islatzen duten leiho irekiak dirudite.

Ez da ezberdin sentitzen gelako mutilek baino hobeto jolasten duelako futboleak,edo gorroto dituen panpin geldo eta bihozgabeekin jolasten ez duelako, hauek zeharo aspertzen baitute. Ez eta ipuin bat berezko irudimen zoragarria daraman zubia dela pentsatzeagatik.

Ezberdin sentitzen da ipotxen laguna baita. Nahiz eta Itziarrek ipotxek berezko bizia ez dutela pentsatu. Horregatik, paperaren gainean, bere irudimenari jarraiki, bere axota berri eta zoragarriaz zirriborro antzeko tintazko ipotxak marrazten ditu leunki. Oharkabeak,neskatoak bizitzaz betetzen ditu zirriborro urdinak.

Tintazko ipotxak, tolestutako orri laurdenetan mirespenez gordeak, bere jolasen adiskide. Ezkutuko lagunak, bere bakardadea abenturaz josten dutenak, ezinezkoa ere gerta daitekeenaren adierazle argiak direnak, irudimena errealitate errazenetik jaiotzen dela adierazten dutenak, tristuraren atzetik beti zoriontasuna ezkutuan gordeta dagoela argibidetzen dihardutenak. Tintazko zure ipotx preziatuak, mundua hauekin eraldatzeko gai zarela pentsatzera iristen baitzara.

Klase egun batean, Alfontso jaunarekin, Idazketa Lantegi garrantzitsu batera joaten zarete. Tintontziak, tinta urdinez beteak ikustean udako urdin iluna ekartzen dizute burura. Itsaso usaina, kresala, sumatzen duzu tinta honetan guztian ipotx zoragarrienak bizi litezkeela pentsatzen duzunean.

Poltsikotik zure orri laurden preziatuak ateratzen dituzu, bertan marraztutako ipotxek beren jatorria zein duten ikus dezaten. Eta orduan, gutxien espero duzunean gertatzen da: zure ipotxei bizia ematen dien tinta lehorra biguntzen hasten da. Urtzen da eta likido egiten da,zuk marraztu berriak izango balira bezala, eta orri laurdenetatik behera irristatzen da. Tantz – tanta, tinta paperetik labaintzen doa, tintontzi baten barnera erortzen da eta hain ikaragarria iruditu zaizun itsaso urdinean gesaltzen da.

Zure gelakideen begiradak, zure orri laurdenetan preso geratzen dira, txuri eta garbi bihurtzen ari direlako, tinta-tanta batek inoiz ukitu ez bazintu bezala. Alfontso jaunaren begiek – beti bihurrikeriaren baten zain daudenak – zeureak bilatzen dituzte, begirada serio eta zorrotz batez.

Ikaskide guztiek barre egiten dute fenomenoaren aurrean. Zu, Itziar, harriturik, irribarre egiten duzu eta komentatzen duzu:

- Ipotxek askatasuna aurkitu dute!

Baina ez dizu inork sinisten.

Hala eta guztiz ere, zuk badakizu momentu horretatik aurrera fenomeno eta gertakari harrigarrienak eta ezustekoenak gerta daitezkeela. Ipotx kuadrila aske batek mundua alderantziz eta hankaz gora jarri dezakeelako.

Hasieran ez da ezer berezirik gertatzen. Baina tintak merkatua estaltzen duenean...

Xabierrek, zure anaiak, ohar lotsati bat idatzi nahi dio 2.DBHko hainbeste gustatzen zaion neskari apunte batzuk eskatzeko. Baina, ustekabez, maitasun gutun dotore eta zoragarri bat idazten dio. Eta neskatoa, Nerea, marrubizko izozki baten antzera urtzen da.

Mikelek, gelako arretagabeenak, azterketan <<Bakarrik dakit ezer ez dakidala>> erantzun nahi du. Alabaina, Alfontso jauna liluraturik geratzen da honen lan bikaina irakurtzean. Zero bat jartzea erabakitzen du, kopia egin duela konbentzitu baitago.

Loreak, aitzitik, examinari bikainki erantzun ordez, pikondoen hostoei kantu bat egiten die. Alfontso jaunak egun txarra eduki duela pentsatzen du, eta zortzi bat jartzen dio.

Baina azterketen emaitzek ez dute ezertarako balio. Irakasle jaunak, suspentso batzuk jartzeko asmoa baitauka. Harritzekoa! Bere idazlumatik bikainak bakarrik irteten dira, beste hitzik idazten jakingo ez balu bezala.

Zipriano jaunak, auzoko dirudun eta zekenenak, zaharren egoitzarentzat 10 euroko taloi bat egin nahi du, eta inork zergatia jakin barik, zeroak eransten hasten da taloiean, lekaimeek <<Nahikoa da Zipriano jauna! Diru kantitatearen ordez tren bat dirudi eta!>> oihukatzen dioten arte.

Egunkarietako gertakari txarren ataleko orrialdeetan, gertakari alaiak agertzen hasten dira. Prentsa arroseko aldizkarietan, aldiz, famatuei buruz hitz egin ordez, jende arruntari buruz dihardute.

Diktadoreek, heriotza zigorrak barkamenarengatik aldatzen dituzte. Politikoeak, bestalde, lege ulertezinak poema argiengatik aldatzen dituzte. Estatu buruek, ondoko herrialdeekin gerra adierazpenak sinatu ordez, adiskidetasun akordioak hitzartzen dituzte.

Munduak, zure ametsetakoaren antza hartzen du.

Gizon jakintsuek irribarre egiten dute. Baina boteretsu eta azkarrek, asekaitez, sekretua tinta berean aurkitzen dela antzematen dute. Badakite ipotx bihurriez betetzen joan dela, paperdendaz paper denda, inprimategiz inprimategi, herrialdez herrialde. Orduan, horregatik, arkatzez idazten hasten dira. Arkatzez soilik. Eta dena, lehen zen bezalakoa izaten hasten da berriro ere.

Horregatik, Itziar, momentu honetatik aurrera, zure ipotxak arkatzez marraztuko dituzula erabakitzen duzu, nahiz eta poltsikoan luzaroan eramateaz ia- ia borratu. Baina zure bakardadea, jokoak eta irudimena betetzen jarraituko dute, tintaz ziren garaian bezala.

Arkatzez marraztuko dituzu ipotxak, Itziar, Alfontso jaunak egunen batean Arkatz Lantegi batera eramango zaituztelako badakizu ezta? Eta agian, egun horretan bertan, ipotxek beren askatasuna soilik lortu ordez, beren ametsetan agertzen diran bihurrikeriak egingo dituzte. Edota zeinek daki, inor ez da sartu ipotx baten garun barnean honek zer pentsatzen duen jakiteko.

Baina , lasai Itziar, ez duzu larritu beharrik, garai hobeagoak iritsiko baitira. Zeu ere hazten eta heldu bilakatzen joango baitzara apurka- apurka, eta gauza hauek zeure burutik aldentzen joango dira.

NEREA ETXEBERRIA (ANDOAIN)